



Osakidetza

VITORIA-GASTEIZKO ERIZAINZAKO UNIBERTSITATE-ESKOLA
ESCUELA UNIVERSITARIA DE ENFERMERÍA DE VITORIA-GASTEIZ



PLAN ESTRATEGIKOA

VITORIA-GASTEIZKO ERIZAINZAKO UNIBERTSITATE ESKOLA

2016 - 2020



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

EDUKIA

AURKEZPENA	2
SARRERA	3
IKASTEGIA.....	4
KALITATE-POLITIKA	5
AURREKARIAK	6
EGOERAREN DIAGNOSTIKOA	8
INDARGUNEAK ETA HOBETU BEHARREKO ALDERDIAK.....	11
INTERES-TALDEAK.....	12
MISIOA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK	13
ARDATZ ESTRATEGIKOAK.....	17
ARDATZ ESTRATEGIKO BAKOITZERAKO HELBURUAK ETA EKINTZAK.....	19
IKASTEGIKO PROZESUEN MAPA.....	23
PROZESUEI LOTURIKO ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK.....	26
TERMINOEN GLOSARIOA	35

AURKEZPENA

Dokumentu honetan Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolaren (Gasteizko EUE) 2016-2020 aldirako Plan Estrategikoa jasotzen da.

Eskola horretako Zuzendaritza-taldeak zuzendu du hausnarketa estrategikoa eta Ikastegiko zenbait interes-taldetako ordezkariak parte hartu dute.

Dokumentuan sarrera txiki bat dago, Ikastegiaren ezaugarriak, kalitate-politika eta Kalitatearen Kudeaketan izan duen ibilbidea azaltzeko.

Berrikuspen estrategikoa egiteko jarraitu den metodologia eta prozesuko faseetan jarduteko modua azaltzen dira, orobat zer ondoriotara heldu diren Interes-taldee, indarguneei eta hobetu beharreko alderdiei dagokienez.

Misioaren inguruan egin den birformulazioa, 2020rako egin nahi diren lorpenak eta Erakundeko pertsonen planteatutako ikuspegira heltzeko izan beharreko erlazioak eta jarrerak jasotzen dira.

Ikastegian landuko diren ardatz estrategikoak aurkezten dira, baita ardatz estrategiko horiei loturiko helburuak, ekintzak eta adierazleak ere. Era berean, horiek harremana dute Eskolako prozesuen maparekin bat kudeatzen diren prozedurekin.

Hori guztia, kudeaketa eraginkor eta efizientea gauzatu ahal izateko egiten da, lorpenen etengabeko segimendua egiteko jazoeratan eta datuetan oinarrituta, Vitoria-Gasteizko EUEko helburu orokorrekin kausa-efektu bidez lerrokatuta mantenduz.

SARRERA

Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskola (EUE) Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiaren menpe dagoen zentro publikoa da, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren babesean eta ondorio akademikoetarako 1978ko apirilaren 11ko agindu bidez Euskal Herriko Unibertsitateari (UPV/EHU) atxikita dagoena, indarrean dagoen atxikipen-hitzarmenarekin bat (EHAA, 1978ko maiatzaren 5koa). Atxikipen-hitzarmen hori 2011ko azaroaren 22an eguneratu zen eta Osasun eta Kontsumoko Sailburuaren 2012ko martxoaren 19ko Aginduan argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

1972. urtean sortu zen eta 1973. urtean ekin zion bere prestakuntza-jarduerari. Garai hartan Gizarte Segurantzako Osasun Laguntzaile Teknikoen Ortiz de Zarate Eskola (OLT) zen eta akademikoki Valladolideko Unibertsitatearen Medikuntza Fakultateari lotuta zegoen.

1979. urtean, unibertsitate-legedian izandako aldaketen ondorioz, OLTko ikasketak Erizaintzako Unibertsitate Diplomatura (EUD) bihurtu ziren. Beraz, gure zentroa Erizaintzako Unibertsitate Eskola bihurtu zen, hasiera batean Bilboko Unibertsitateari eta ondoren UPV/EHUri lotuta.

1987an, azaroaren 6ko 1536/1987 Errege Dekretuaren bidez, Euskal Herriko Autonomia Erkidegora transferitu zen eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila horren Ente titular bihurtu zen.

Vitoria-Gasteizko EUEko Erizaintza ikasketak, urteotan, uneoro indarrean zegoen legediari jarraituz gauzatu dira.

Erizaintza 2008ko otsailaren 14ko Ebazpenaren (EHAA, 2008/02/27) eta uztailaren 3ko CIN/2134/2008 Aginduaren arabera araututako lanbidea da; horietan ezartzen dira, hain zuzen ere, Erizaintzan jarduteko gaitzen duten Graduako unibertsitate-titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak.

Vitoria-Gasteizko EUEn Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan (euskaraz eta gaztelaniaz) irakasten da titulazio hori 2010az geroztik, Unibertsitate Kontseiluak Erizaintza Graduako Titulu Ofiziala egiaztatu ostean eta zegokion Ikasketa Plana argitaratu ostean.

Erizaintza Graduako lehen promozioak prestakuntza amaitu zuenean, 2013/2014 ikasturtean, Euskal Herriko Unibertsitateko Erizaintza Graduatuaren Titulu Ofizialaren Ziurtapena berritu behar izan zen. Tituluaren Ziurtapenaren Berriztapenak 2015ean jaso zuen Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren (UNIBASQ) oniritzia.

IKASTEGIA

Vitoria-Gasteizko EUEk prozesuen bidezko kudeaketa erabiltzen du barne antolakuntzarako eta kudeaketarako, bezeroei, hots, ikasleei orientatutako estrategia zabaltzeko.

Ikastegiko hezkuntza-komunitatea honako hauek osatzen dute:

- Zuzendaritza-taldea, Zuzendariak, Zuzendariordeak eta Idazkari Akademikoak osatzen dutena. Horiek, kudeaketa-jardueretan eta irakaskuntzan dihardute.
- Antolakuntzako goi mailako teknikaria (Kalitateko teknikaria).
- Kudeaketako erdi mailako teknikaria, baliabideen arduraduna.
- Irakaskuntza eta Ikerkuntzako Pertsonaleko (IIP) hamabost kide, lanaldi osoan.
- Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonaleko (AZP) zazpi kide, irakaskuntza-funtzioa egokia izateko beharrezkoa den laguntza ematen dutenak.
- 330 ikasle inguru. 80 plaza eskaintzen dira urtean.

Aipatutako pertsonen gainera, Eskolak lanaldi murriztuan jarduten duten irakasleak ditu. Gehienak osasun-sare publikokoak dira, eta, euren asistentzia-jardueraz gain, irakaskuntzan aritzen dira gure zentroan.

Bestalde, Irakaskuntza Tutoreen laguntza ere badago. Horiek asistentzia-unitateetan esperientzia kliniko handia duten erizaintzako profesionalak dira eta haiekin egiten dituzte ikasleek titulazioko prestakuntza praktikoari dagozkion 92 ECTS kredituak.

Vitoria-Gasteizko EUEn, Osakidetza-ren mendeko ikastegia izaki eta, akademikoki, UPV/EHUri atxikita egonik, Unibertsitatearen arautegiaren arabera egiten da ikasleen prestakuntza. Gobernuari dagokionez, organo kolegiatu bat du, hots, Patronatua, baita pertsona bakarreko zenbait organo ere, hala nola Zuzendaria, Zuzendariordea eta Idazkari Akademikoa.

Patronatua da Gobernu Organo gorena eta hari dagozkio, besteak beste, estrategiak onartzea, kudeaketa ekonomikoa egitea, Eskolako Zuzendariaren izendapena proposatzea eta, oro har, Eskolaren esparrua gainditzen duten erabaki guztiak hartzea.

KALITATE-POLITIKA

Vitoria-Gasteizko EUEren jokabide-irizpidea da ikasleak direla eskolaren izateko arrazoiak, eta hezkuntza-bikaintasuna, bere zeregina.

Goi Mailako Ikastegia izaki, eskolaren betebeharra da ezagutzaren erronkei erantzungo dien prestakuntza eskaintzea, transformazio-eragile gisa jardutea eta gizartearen uneko eta etorkizuneko beharrei erantzutea.

Edozein Erakunderen kasuan gertatzen den bezalaxe, eskolak ulertzen du bere Misioan emaitza bikainak lortuko baditu, bezeroenganako orientazio argia izan behar duela oinarri, prozesuen bidezko kudeaketa eraginkor eta efizientearekin, Kudeaketa Aurreratuko Ereduaren barruan.

Zuzendaritza-estiloak ingurune-baldintza egokiak sortu behar ditu, ikasleak, irakaskuntzako eta ikerketako pertsonala (IIP) eta administrazio eta zerbitzuertako pertsonala (AZP) gustura aritu daitezen eta, era berean, pertsonen gaitasunak, ezagutzak eta konpetentziak garatu daitezen, Vitoria-Gasteizko EUEren eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Estrategiarekin bat.

Lidergoaren bidez zuzendu eta bultzatu behar da Estrategia, pertsonen inplikazioaren bidez gauzatuko dena; eraginkortasunez jardunez; ikasleekiko harremanak landuz, haiek bezeroak baitira; euskal gizartea kontuan hartuz, han jardungo baitute, eta gizartearekiko konpromisoa onartuz; baliabideak eta ideiak kudeatuz; eta, orobat pertsonen potentzial berritzailea kudeatuz eta proiektu berritzaileak gauzatuz.

Lankidetzan oinarritutako ikaskuntza-irakaskuntza ereduak eskainiko dira, dinamikoak eta eguneratuak, ikasleengan zentratuta. Horiek Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Espazioaren beharrei erantzungo diete eta diziplina-ezagutza garatzen, ezagutarazten eta aplikatzen lagunduko dute, Goi Mailako Hezkuntzako Institutioek gizartearekin duten konpromiso sozialari erantzuteko.

Horren guztiaren helburua emaitza onak eta orekatuak lortzea da interes-talde desberdinentzako, eboluzionatzen, eraldatzen eta haien lehiakortasuna eta jasangarritasuna finkatzen laguntzeko, berrikusketaren eta etengabeko hobekuntzaren ikuspegitik, betiere: Planteatzea, Abiaraztea, Ebaluatzea eta Doitzea.

AURREKARIAK

Vitoria-Gasteizko EUEk ibilbide luzea du Kalitatearen Kudeaketan eta, mendekotasun bikoitza duen Ikastegia izaki, beti saiatu da egoera horretatik eratortzen diren konpromisoak eta betebeharrak erantzuten, Osakidetzaren, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren eta UPV/EHUreren Lerro Estrategikoekin bat.

Hala, 2000 urtean, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioko (HZM) Unibertsitate Kalitatea Ebaluatzen Espainiako Planaren (PNECU) 3. fasean parte hartu zuen. Zuzendaritzak eta ikastegiko beste zenbait pertsonak osatutako Kalitate Batzordeak txosten xehatua prestatu zuen, eta hori Espainiako zenbait unibertsitateetako kanpo ebaluatzaileek kontrastatu zuten ondoren. Horrekin, eta Osakidetzak emandako bultzadarekin, Ikastegiak EFQM ereduak onartu zuen 2002 urtean kudeaketa-eredutzat, eta EHUKo Kudeaketa Berritzaileko Ikastegiaren Sareko zati izatera pasa zen.

2005 urtean, 2005-2011 aldirako Lehen Plan Estrategikoa prestatu zuen. Aldi horretan, prozesuen mapa eta Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema diseinatu ziren.

Vitoria-Gasteizko EUEren kudeaketa-ereduak errekonozimendua jaso zuen 2008 urtean, Euskalit Fundazioak Zilarrezko Q saria eman zionean.

2010eko maiatzean, ANECAk aldeko txostena eman zion Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Erizaintza Graduak Titulu Ofizialaren ziurtapen-eskaerari eta, urte bereko uztailean, Hezkuntza Ministerioko Unibertsitateen Kontseiluak oniritzia eman zion UPV/EHUKo Erizaintza Graduak Tituluaren proposamenari.

Ikasketa Plana Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2011ko otsailaren 4an, ostirala, UPV/EHUreren 2010eko abenduaren 20ko Ebazpenaren bidez. Hilabete batzuk geroago, berriro argitaratu behar izan zen, akatsak zuzentze aldera, UPV/EHUreren 2012ko urtarrilaren 10eko Ebazpenarekin.

Zuzendaritza-talde berria osatu zenean, 2011ko urrian, 2011-2015 aldirako Plan Estrategikoa berriro egin zen, eta Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren prozesuak eta prozedurak eguneratu ziren.

Urtebete geroago, 2012ko urrian, Kalitatea Ebaluatzeko eta Ziurtatzeko Espainiako Agentziak (ANECA) eta Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziak (UNIBASQ) UPV/EHuren Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren diseinua ziurtatu zuen. Sistema hori Gasteizko EUEn irakasten diren gradu-ikasketa ofizialetan aplikagarria da, AUDIT programan indarrean dagoen dokumentazioan ezartzen diren arau eta jarraibideak betetzen dituelako, unibertsitate-prestakuntzaren Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemak diseinatzeari eta garatzeari dagokionez.

2014ko urrian, UPV/EHUK bere Kudeaketa-sarean sartu zuen EUE, eta UNIKUDE aplikazioa eskuratu, prozesuen bidezko kudeaketa hobetzeko.

2015eko abuztuaren 14an, UNIBASQek, irizpideei eta jarraibideei buruz egindako balorazioetan oinarrituta, Vitoria-Gasteizko EUEri aldeko behin-behineko txostena eman zion, Erizaintza Graduaren ziurtapena berritzeko. Txostena 2015eko irailaren 3an egin zen behin betiko.

Jarraian, 2015eko urriaren 23an, Unibertsitate Kontseiluak, Egiaztatzeko eta Ziurtatzeko Batzordearen bidez, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Erizaintzako Graduatuaren unibertsitate-titulu ofizialaren ziurtapena Berritzeko Ebazpena eman zuen.

2016an, AUDIT ziurtapena eta 2011-2015 aldirako Plan Estrategikoa iraungi zirenez, 2016-2020 aldirako Plan Estrategiko berria diseinatzeko eta UNIBASQ-i Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren ezarpena (AUDIT programarekin bat) ziurta zezan eskatzeko beharra sortu zen.

Horrez gainera, Zuzendaritza-talde berria eratu da eta horrek Plan Estrategikoa Euskalitek proposatutako Kudeaketa Eredu Aurreratuan oinarrituta diseinatzeko erronka planteatu du, betiere, Osakidetza, Osasun Sailaren eta UPV/EHuren eskakizunekin bat.

EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

Plan Estrategikoa berritzeko berrikuspen estrategikoa egin da, Erakundeko interes-talde esanguratsuenen zati handi baten parte hartzearekin, plana diseinatzeko informazio garrantzitsua lortzeko asmoz.

BERRIKUSPEN-PROZESUAREN FASEAK

Bost fase ezarri dira:

1. fasea:

- Zuzendaritza-taldeak eta Antolamenduko Teknikariak egindako autoebaluazioa, 2011-2015 aldirako Plan Estrategikoak lortu dituen helburuak aztertzeke.
- Zuzendaritza-taldeak eta Antolamenduko Teknikariak Kudeaketa Eredu Aurreratuari buruzko prestakuntza egitea, Euskaliten jarraibideekin bat.

2. fasea:

- Interes-talde garrantzitsuenetako pertsona esanguratsuekin bilerak egitea, erdi egituratutako gidoi batekin, talde-dinamiketan aditua den pertsona batek zuzenduta.

3. fasea:

- Interes-taldeen bidez lortutako informazioa aztertzea, Misioa, Ikuspegia eta Balioak berrikusteko proiektua prestatzea eta Ardatz estrategikoak / Helburuak / Jarduerak berritzea.

4. fasea:

- Kalitate Batzordeari Plan Estrategikoa berritzeko proiektu bat aurkeztea, eta hori jasotako iradokizunak txertatu ostean onartzea.
- 2016-2020 aldirako Plan Estrategiko berriaren dokumentu-proiektu adostua prestatzea.

5. fasea:

- Proiektua ikastegiko pertsona guztiei aurkeztea, haien ekarpenak jasotzeko.

JARDUTEKO MODUA

1. Fasea

2016ko urtarrilean, Zuzendaritza-taldeak eta Antolamenduko Teknikariak 2011-2015 aldirako Plan Estrategikoan planteatutako helburuen lorpen-mailaren autoebaluazioa egin zuten. Analisi horretan, lortutako helburuak eta Ikastegiko aurreko Zuzendaritzak baztertutako helburuak identifikatu ziren.

2. Fasea

2016ko apirilean, partaidetzazko berrikuntza-prozesua egiteko asmoz, Plan Estrategikoa berrikusteko ekintzak hasi ziren. Hain zuzen ere, ikastegiko interes-taldeetako ordezkariekin bilerak planifikatu ziren, Eskolako alderdi esanguratsuei buruzko informazioa jasotzeko helburuarekin.

Taldeen bilerak talde-dinamiketan aditua den pertsona batek zuzendu zituen, aldez aurretik diseinatutako gidoi batekin. Iraungitako Plan Estrategikoko honako alderdi hauek aztertu ziren:

- Misioa, Ikuspegia eta Balioak, horien hobeizintasuna eta indarraldia baloratzeko eta aldaketak iradokitzeke.
- Eskolaren indarguneen eta hobetu beharreko alderdien berrikuspena, aurreko Planerako egindako ahulezien, mehatxuen, indarguneen eta aukeren analisisian oinarrituta.
- Ardatz Estrategiko bakoitzean egindako jardueren analisisa (talde bakoitzak bere eragin-esparruarekin).

Taldeak interes-talde esanguratsuenak ordezkatzeko zituzten pertsonekin osatu ziren:

1. Uneko eta iraganeko ikasleen taldea:
 - 3. mailako 2 ikasle (bi hizkuntza-lerroetakoak)
 - 4. mailako ikasle 1 (euskarako delegatua)
 - 2013-2014 ikasturtean gradua amaitu zuten 2 ikasle (hizkuntza-lerro bakoitzeko bana)
2. Lanaldi osoko edo lanaldi murriztuko IIP taldea:
 - Bi hizkuntza-lerroetako 1. eta 2. mailako koordinatzaileak (4)
 - Praktika-koordinatzailea
 - Irakasle laguntzaileak (2, aditu bat eta irakasle berri bat)
3. Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalaren taldea
 - AZP taldearen arduraduna
 - Kudeaketa akademikoko arduraduna
 - Kudeaketako teknikaria
 - Liburutegiko arduraduna
 - Zeladorea
4. Irakaskuntza-tutoreen eta enplegatzaileen taldea:
 - Ospitaleko arretako 2 tutore

- Lehen Mailako Arretako tutore 1
- Gizarte- eta osasun-arretako tutore 1

3. Fasea

Bilera horien emaitzak adituak prestatutako Txostenean jasota daude eta Eskolako Zuzendaritza Taldeak aztertu ditu. Horrek, informazio hau erreferentziatzat hartuta, 2016-2020 aldirako Plan berriaren Ardatz Estrategikoen proposamena prestatu du.

4. fasea:

2016ko azaroaren 30ean Kalitate Batzordearekin bilera egin zen, eta honako hauek egin ziren han:

1. Iraungitako Planaren Misioa, Ikuspegia eta Balioak irakurri eta aztertu, eta aldaketak proposatu.
2. Eskolaren indarguneak eta hobetu beharreko alderdiak identifikatu (2011-2015 aldirako Planeko ahulezia eta indarguneak oinarri hartuta).
3. Aurkezten den 2016-2020 aldirako Planerako Ardatz estrategikoen, Helburuen eta Ekintzen proposamena aztertu.

5. fasea:

2016ko abenduan, Kalitate Batzordeak onartu ostean, behin betiko dokumentua bukatu zen eta Vitoria-Gasteizko EUEko pertsona guztiei helarazi zitzaion.

AZKEN EGOERA

Bost fase horietan egindako lanaren ondorioz, Plan Estrategiko berria diseinatu da, eta bertan barne hartzen dira honako hauek: Eskolaren indarguneak eta hobetu beharreko alderdiak; interes-taldeen zerrenda; Ikastegiaren Misioa, Ikuspegia eta Balioak; eta Lerro Estrategikoak, horien Helburuekin, Ekintzekin eta Adierazleekin (loturiko prozedurekin) 2016-2020 aldirako.

INDARGUNEAK ETA HOBETU BEHARREKO ALDERDIAK

Aurreko Plan Estrategikoaren ahuleziak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak aztertu ostean, egungo indarguneen eta hobetu beharreko alderdien berrikuspena egin da, eta honela geratu da:

INDARGUNEAK

- Osakidetzako eta Osasun Saileko partaide izatea.
- Eskolan lanaldi osoan diharduen IIPk esperientzia kliniko handia izatea.
- Irakasleen egonkortasuna.
- Tutoreen eta erizaintza-taldeen inplikazio handia praktikak egiten ari diren ikasleen prestakuntzan.
- Eskola ARABA ESiren osasun-instalazioetan egotea.
- Irakasleen hautaketa arautua, plazaren profilera egokituta.
- IIPko kideek Hezkuntza Berrikuntzako Proiektuetan, Unibertsitate Masterretan eta osasun-prestakuntza espezializatuko programetan parte hartzea.
- Ikasleei banakako arreta eskaintzea Zuzendaritza-taldeak, irakasleek eta AZPk.
- Ikasleen ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren etengabeko jarraipena, eta irakasle eta tutoreen arteko harreman estua.
- Eraitza akademiko bikainak. Arrakasta- eta errendimendu-tasa altua.
- Ikasleen partaidetza aktiboa ordezkartza-organoetan.
- Ikasleen, graduatuen eta pertsonen asebetetze-maila altua.
- Ikasleen Estatu mailako eta nazioarteko mugikortasun-ehuneko handia eta finkatua.
- Prestigio-irudia Instituzioen aurrean.
- Aliantza sendoak gizarte- eta osasun-ingurunearekin.
- Ezagutzak zabaltzen eta foro zientifikoetan parte hartzea.
- Etengabeko hobekuntzako kultura.
- Gaitasun-maila onarekin laneratzea.
- Administrazioaren irisgarritasuna, funtzionamendu arinarekin.

HOBETZEKO ARLOAK

- Doktoretza duten irakasleen ehuneko baxua.
- Irakasle-truke txikia, beste eskola eta zentro batzuekin.
- Barne-komunikazioetan jarduteko modua finkatzea.
- Euskarazko lerroan, irakasle laguntzaileak fidelizatzeko zailtasunak.
- Euskaraz irakasteko eragozpenak (bibliografia, dokumentazioa, praktiketako hizkuntza, osasun-sistemako aplikazio informatikoak).
- Azpiegiturak Ikastegiaren beharretara egokitzea.

INTERES-TALDEAK

Interes-talde garrantzitsuenen berrikuspen sakona egin da, batetik, ikastegiak haiei buruz jasotzen duen informazioaren arabera, haien jarduerak doitzeko; eta, bestetik, eskatzen duten informazioaren arabera. Hartara, sinplifikatu egin dira eta egoera berrira egokitu dira.

Interes-taldea	Esparrua
Irakaskuntzaren Kalitatea Ebaluatzeko kanpo Agentziak: ANECA, UNIBASQ	Kanpokoak
Ikasleak: Unekoak, ikasle potentzialak eta graduatuak.	Kanpokoak Erakunde barrukoak
EAEko Gaixoen eta haien Senideen Elkarteak	Kanpokoak
BioAraba	Erakunde barrukoak
Praktiketarako zentroak: Araba ESI, Gizarte Ongizateko Foru Institutua, Aita Menni Ospitalea, Gasteizko Udala.	Kanpokoak Erakunde barrukoak
Arabako Erizaintza Elkargo Ofiziala	Kanpokoak
Osasun Saila	Erakunde barrukoak
UPV/EHUko Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea	Erakunde barrukoak
Osakidetza	Erakunde barrukoak
Ikastegiko pertsonak: IIP eta AZP	Ikastegi barrukoak
EAEko Osasun-sistemako eta Gizarte- eta Osasun-sistemako profesionalak	Kanpokoak Erakunde barrukoak
Hornitzaileak	Kanpokoak
Gizartea: Euskal Autonomia Erkidegoa	Kanpokoak
Tutore irakasleak	Kanpokoak Erakunde barrukoak
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea	Erakunde barrukoak
Ikasleen mugikortasunerako unibertsitateak, IIP eta AZP: Estatuko eta atzerriko unibertsitateak	Kanpokoak

MISIOA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK

MISIOA

Misioa erakundearen izaera, izateko arrazoia, xede dituen bezeroak, eskaintzen dituen zerbitzuak eta bereizgarri dituen jarduteko bideak zehazten dituen adierazpena da.

Misioaren definizio berrira iristeko, Vitoria-Gasteizko EUEk une honetan dituen ezaugarrien inguruko hausnarketa egin da.

Misioa berrikusi eta birformulatu da, eta honela geratu da:

VITORIA-GASTEIZKO EUE-REN MISIOA

Erizaintzako profesional generalistak prestatzea, prestakuntza zientifikoa eta giza prestakuntza nahikoa dutenak artatzen dituzten pertsonen osasun-beharrei egokitutako atentzio sanitario tekniko eta profesionala emateko, uneko ezagutza zientifikoen garapen-egoeraren eta aplikagarriak diren arau legal eta deontologikoetan ezarritako kalitate-eta segurtasun-mailaren arabera.

IKUSPEGIA

Ikuspegia jarduerari (negozioa), bezeroei eta guztia garatzen den gizarte-inguruneari dagokionez, plan honek barne hartzen duen aldian, egin nahi diren helburuak eta lorpenak laburbiltzen dituen adierazpena da. Erakundeak nora iritsi nahi duen eta noiz iritsi nahi duen, nola ikusi nahi duen bere burua eta nola nahi duen bestek ikustea adierazten du.

IKUSPEGIA

Vitoria-Gasteizko EUEren helburua **Irakaskuntza Zentro** izatea da, honako hauen errekonozimenduekin:

- **Enplegatzaileak**, zehazki, profesional gogoetatsuak, arduratsuak eta autonomoak prestatzeagatik, lankidetzan aritzeko gaitasuna eta bizitzan zehar ikastearekiko konpromisoa dutenak, uneko eta etorkizuneko beharren zerbitzura proiektuak zuzentzeko gaitasunarekin.
- **Ikasleak**, hezkuntzaren kalitatearengatik, irakaskuntza-metodologia berritzaileak erabiltzeagatik eta nazioartekotzen laguntzeagatik, Estatu mailan eta nazioartean eskaintzen diren elkartruke ugariengatik.
- **Pertsonak**, horiek eratzen baitute Hezkuntza Komunitatea. Espazio horretan, ikasleek, irakaskuntzako eta ikerketako pertsonalak (IIP) eta administrazio eta zerbitzuetako pertsonalak (AZP) gogobetetasuna aurkitzen dute haien jardueran, errespetua, komunikazioa, kide izatearen sentipena eta elkarrekiko lankidetzak nagusitzen diren ingurunean.
- **Gizartea**, ospe handiko Erizaintza Eskola izateagatik, gardena eta gizarte-ardura handikoa, kultura eta sinesmen anitzekiko konprometitua eta abegitsua, eta arazo globalekiko sentikorra.
- **Kolektibo profesionala**, ikerketan, berrikuntzan, difusioan eta ezagutza-aplikazioan laguntzeagatik, Goi Mailako Hezkuntza Institutuzio publikoa izaki, gizartearekin duen konpromisoari erantzunez.
- **Osakidetza, Osasun Saila eta UPV/EHU**, gobernu onaren printzipioekin, kudeaketa-bikaintasunarekin eta etengabe hobetzeko jarrerarekin duten konpromisoarengatik.

BALIOAK

Balioak erakundeko pertsonen jokabideak deskribatzen dituzten eta haien erlazioak zehazten dituzten kontzeptuak eta itxaropenak dira. Estrategia eta erakundearen kultura garatzeko oinarria dira eta, hala, erakundeko kide guztiek bere egin behar dituzte, planteatutako ikuspegiarantz aurrera egiteko oinarri irmoa baitira.



Balioekin batera, horien esanahi inplizituen azalpen laburra egingo dugu.

Errespetua; entzute aktiboaren garrantzia nabarmentzen da eta unibertsitate-komunitateko erlazio guztietan aplikatzekoa da: irakasleen eta ikasleen artean; irakasleen artean; IIPren eta administrazio eta zerbitzuetako langileen artean; AZPko langileen eta zuzendaritza-taldearen artean.

Arduraren balioa gardentasunarekiko eta erakunde osoaren kudeaketaren gobernu onarekiko gizarte-konpromisoan hasten dela ulertzen dugu, eta irakasleen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen konpromisoraino heltzen dela, dagozkien lanetan dihardutenean; orobat, ikasleei dagokie beren ikaskuntzarekiko konpromisoa izatea, eta alderdi guztiek dute ingurumenarekiko ardura.

Berrikuntzari dagokionez, berrikuntza pedagogikoa eta edozein ezagutza-arlo edo lanetan egindako berrikuntza barne hartzen ditu.

Inplikazioaren eta konpromisoaren balioa aurrerapen profesionalarekin, etengabeko hobekuntzarekin (edozein arlotan ahalegintzeko eta hobetzeko irrika, ez soilik kudeaketari dagokionez, baizik eta baita pedagogiari eta administrazioari dagokionez ere), gizartearekin eta ingurumenarekin dago erlazionatuta.

Partaidetzazko lidergoa ikastegiaren Misioa partekatzeko ardura nork bere gain hartzea da, eta lortu nahi diren Ikuspegiaren eta Balioetan partaide izatea.

Malgutasuna aukera hobeei bide emateko aukera gisa aurkezten da, betiere, arautegia beteta.

Arreta pertsonalizatua, interes-taldeak osatzen dituzten pertsona guztiei zuzendua eta haien berezitasun eta beharretara egokitua.

Aurreko edukien azalpenarekin aberastuta, Vitoria-Gasteizko EUEren balioak honako kontzeptu hauetan ezarrita geratzen dira:

- ❖ Errespetua
- ❖ Ardura
- ❖ Berrikuntza
- ❖ Inplikazioa eta konpromisoa
- ❖ Partaidetzazko lidergoa
- ❖ Malgutasuna
- ❖ Arreta pertsonalizatua



ARDATZ ESTRATEGIKOAK

Vitoria-Gasteizko EUEk helburu estrategikoak lortzeko oinarri gisa erabiltzen dituen kontzeptuak dira.

- **1. ARDATZA HEZKUNTZA-BIKAINASUNA**
Ikastegiaren Misiolari loturiko guztia barne hartzen du, Vitoria-Gasteizko EUEn Erizaintza Gradua egiten ari diren ikasleen ikaskuntza / irakaskuntzan bikaintasuna lortzearen harira.
- **2. ARDATZA IKASLEEKIKO HARREMANA**
Ikastegiaren Estrategiaren funtsa eta izateko arrazoia da, ikasleei arreta osoa eskaini nahi baitzaie ikaskuntza-prozesu osoan zehar, eta erreferentziatzko tokia izan, behin ikasketak amaitu dituztenean.
- **3. ARDATZA IKERKETA, GARAPENA ETA BERRIKUNTZA**
Aldaketei aurre egiteko eta etorkizuna bideratzeko modua ezartzen du, bere ingurunean (Osakidetza) ezagutzen transferentziako erreferentzia eta hezkuntza-berrikuntzako eredua izateko.
- **4. ARDATZA GIZARTEA, KOMUNIKAZIOA ETA IRUDIA**
Instituzio publiko gardena eta gizartearekin konprometitua izaki, garatutako jardueren gaineko ardura administratzeko moduari dagokio.
- **5. ARDATZA IKASTEGIKO PERTSONAK (IIP ETA AZP)**
Prestakuntzaren kudeaketa, gaitasunen eta konpetentzien garapena, Balioekiko identifikazioa eta pertsonen Ikuspegiarantz aurrera egiteko duten konpromisoa barne hartzen dira.
- **6. ARDATZA AZPIEGITURAK ETA LANEKO INGURUNEA**
Pertsonen pozik lan egin ahal izateko, ikasleak eroso sentitzeko eta bi kolektibo horiek ingurumenaren jasagarritasunaren alde lan egin ahal izateko, ezaugarriak, baldintzak eta antolakuntza aipatzen dira.
- **7. ARDATZA KUDEAKETA ETA ETENGABEKO HOBEKUNTZA**
Gobernu onaren printzipioekin konprometitutako kudeaketa-sistema eta antolamendu-eredua ditu, helburu estrategikoak lortzera orientatua, berrikusketaren eta etengabeko hobekuntzaren ikuspegitik eta kudeaketa bikaina izateagatik erreferente den Ikastegia izateko asmoarekin.

ARDATZ ESTRATEGIKOAK



ARDATZ ESTRATEGIKO BAKOITZERAKO HELBURUAK ETA EKINTZAK

ARDATZ ESTRATEGIKOAK	HELBURUAK	EKINTZAK
1. HEZKUNTZA-BIKAINITASUNA	1.1. Ikasleen prestakuntza osoa sendotzea, gaitasun eta zeharkakoak lagunduz	1.1.1. Politika aktiboa ezartzea, lanaldi osoan dagoen irakaskuntza eta ikerketako langileek doktoretza lortzeko lan akademikoa egin dezaten.
		1.1.2. Lanaldi osoan dauden irakaskuntzako eta ikerketako langileen kopurua igo dadin eskatzea, ikasle / irakasle ratioa egokitzeko.
		1.1.3. Ikasgaietako edukien analisia egitea, gaitasun espezifikoa eta zeharkakoak egokitzea baloratzeko.
		1.1.4. UPV/EHUko hiru ikastegietan izendapen bera duten ikasgaietako edukiak bateratzea.
		1.1.5. UPV/EHUko hiru ikastegietan GAL eta Practicum ebaluatzeko irizpideak bateratzea.
		1.1.6. Metodologia aktiboak mantendu eta garatu daitezen sustatzea.
